

GIZA GORPUTZEKO ZELULEN ETA EHUNEN BEHAKETA MIKROSKOPIKOA: IKUSIZ IKASI

- **Jakintza adarra:** Osasun Zientziak
- **Campusa:** Bizkaia
- **Ikastegi antolatzailea:** Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea
- **Gradua/k:**
Medikuntza
- **Garapen-lekua (helbidea):** Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea.
Sarriena Auzoa z/g, Leioa

1. JARDUERAREN DESKRIBAPEN LABURRA

Gizakien organoen antolakuntzaren inguruko ezagutza oinarritzak da medikuntzan jarduteko. Mikroskopia bidezko ehunen behaketak gure giza gorputzeko zelulen eta ehunen fisiologia eta antolakuntzari buruzko informazio mordo eskaintzen digu. Honek, oraindik ere gaur egun, mikroskopia bidezko biopsien azterketak hainbat eritasun diagnostikatzeko eskuragarri dagoen teknika ahaltsuenetarikoa izaten jarraitzen du.

2. LANDUKO DIREN GAIK/EDUKIAK

1. **Mikroskopia optikoaren erabilpena.** Laborategiko praktika modalitatea erabiliz, ikasleak eremu argiko mikroskopia erabiltzen irakatsiko zaio, gerora benetako lagin biologikoak aztertzeko erabil dezan.
2. **Ehun baten zelulak eta matrize estrazelularreko osagaiak identifikatzea,** lagin histologikoetan. Lagin biologiko bat mikroskopioan aztertuz, ikasleek bertan zelulak eta egitura histologikoak bereizten ikasiko dute.
3. Ehun baten zelulak eta matrize estrazelularreko osagaiak identifikatzea, **histologia atlasetan.** Oraingo honetan irudi histologikoen atlas bat aztertuz, ikasleek lehen ikusitako lagin biologiko berberean dauden zelulen eta egiturei buruzko informazio gehigarria eskuratu ahal izango dute, eta hasiera batean bereizi ez zituzten gauzez jabetu.
4. 2D eta 3D arteko trantsizioa. **Animazio digitalak** erabiliz, ehun biologikoen benetako hiru-dimentsiozko egituren eta bi-dimentsiozko irudi histologikoen arteko loturak eta ezberdintasunak azpimarratuko dira.
5. Behaketa mikroskopikoa eritasunen diagnosirako. **Lagin osasuntsuen eta lagin patologikoen arteko konparaketa** bat egingo da. Modu

horretan, ikasleak jabetu egingo dira zeintzuk diren prozesu patologikoen aztarnak zelulen eta ehunen mailan, adibide konkretuekin (tumoreak).

6. **Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko ikasketei buruzko informazioa.** Hitzaldi bat eta galdera irekien txanda emango dira.

3. EGINGO DIREN EKINTZAK

- Mikroskopia erabiltzeko argibideak eta azalpenak.
- Lagin biologiko osasuntsuen behaketa, mikroskopioan.
- Mikroskopia birtualen erabilpena (web).
- Animazio birtualen erabilpena (web).
- Tumore laginen behaketa, mikroskopioan.
- Giza ehunen irudien atlasen erabilpena.

4. EGUTEGIA ETA PLAZAK

Data	Hizkuntza	Txanda	Ordua	Plazak
2026-01-26	Euskara	Arratsaldez	16:00-18:00	25
2026-01-26	Gaztelania	Arratsaldez	16:00-18:00	25
2026-01-27	Euskara	Arratsaldez	16:00-18:00	25
2026-01-27	Gaztelania	Arratsaldez	16:00-18:00	25
2026-01-28	Euskara	Arratsaldez	16:00-18:00	25
2026-01-28	Gaztelania	Arratsaldez	16:00-18:00	25
2026-01-29	Euskara	Arratsaldez	16:00-18:00	25
2026-01-29	Gaztelania	Arratsaldez	16:00-18:00	25